


# INGURUMEN IKUSKAPENERAKO                   ETA KONTROLERAKO PROGRAMA

Ingurumena, datozen belaunaldiekiko konpromisoa

## 2019



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

# INGURUMEN IKUSKAPENERAKO ETA KONTROLERAKO PROGRAMA

Ingurumena, datozen belaunaldiekiko konpromisoa

Data

Apirila 2019

Jabea

Eusko Jaurlaritza.



 **euskadi.eus**

[www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus)

<b>1.- SARRERA</b> .....	<b>2</b>
<b>2.- 2019KO PROGRAMAREN HELBURUAK</b> .....	<b>2</b>
2.1.- 2019KO HELBURU ESTRATEGIKOAK ETA PROIEKTUAK.....	4
2.2.- 2019KO IKUSKAPEN-PROIEKTUAK: HELBURU ESPEZIFIKOAK ETA XEDEAK.....	5
2.2.1.- 01/2019 Proiektua: IPPC jardueren segimendua ikuskatzea.....	6
2.2.2.- 06/2019 Proiektua: Igorpenak Etengabeen Neurtzeko Sistemak (IENS) kontrolatzea IPPC instalazioetan.....	6
2.2.3.- 04/2019 Proiektua Ingurumen-erantzukizuna.....	7
2.2.4.- 02/2019 Proiektua: IPPC ez diren jardueren ikuskapen programatua..	8
2.2.5.- 03/2019 Proiektua: Ikuskatzea Ingurumen Lankidetzako Erakundeak (ILE).....	8
2.2.6.- 05/2019 Proiektua: Hondakinen lekualdaketa.....	9
2.2.7.- 08/2019 Proiektua: Hondakinak eta lehengaiak kudeatzea, jarduerak eten ostean.....	11
2.2.8.- 07/2019 Proiektua: Industria guneen jarraipena.....	11
2.2.9.- 09/2019 Proiektua: Abisuen eta programatu gabeko bisiten kudeaketa.....	12
<b>3.- GIZA BALIABIDEEN ANTOLAKUNTZA</b> .....	<b>14</b>
<b>4.- INFORMAZIOA KUDEATZEKO SISTEMA</b> .....	<b>14</b>
<b>5.- KONTROL-PLANA</b> .....	<b>14</b>
<b>6.- INGURUMEN-ARAUDIA ETA -DIZIPLINA</b> .....	<b>15</b>
<b>7.- INGURUMEN IKUSKAPENERAKO ETA KONTROLERAKO PROGRAMA BERRIKUSTEA</b> .....	<b>15</b>

## 1.- SARRERA

2019an, aurrera eramango diren proiektuak zehaztea du xede 2019ko programak, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailburuordetzaren **2019-2026 Ingurumen arloko Ikuskaritza eta Kontrolerako Plana** eta arlo horretako indarreko araudia betetzeko. Horretarako, Planaren helburu estrategikoak aintzat hartuko dituzte 2019an aurrera eramango diren proiektuek, eta xehetasun operatiboak, ekintza-plana eta egingo den jarraipena jasoko dira haien oinarritzko agirietan. Programa horrek, nagusiki, proiektuen helburuak eta xedeak jasotzen ditu, eta helburu estrategikoekin duen lotura ere bai.

## 2.- 2019ko PROGRAMAREN HELBURUAK

2019ko Ikuskapenerako eta Kontrolerako Programa oinarrituta dago funtsezko zutabe hauetan:

- a) **IPPC ekintzen jarraipena egiteko ikuskapenak<sup>1</sup>**. Ingurumen-araudiari eta -kudeaketari dagokienez, IPPC enpresek betetze-maila altua edukitzea da ikuskapen horien helburua.
- b) **IPPC ez diren jarduerak ikuskatzea**. Ingurumen-araudiari eta -kudeaketari dagokienez, IPPC ez diren enpresek betetze-maila altua edukitzea da ikuskapen horien helburua. Betetze-maila hobea lortu dute aurreko urteetan IPPC ez diren jardueretan Ingurumen Lankidetzarako Erakundeen (ILE) laguntzarekin egin diren jarduerak. Horregatik, ekitaldi honetan, metodologia berarekin jarraitzea proposatu da. Hala, garrantzitsua da aurreko ekitaldian ikuskatutako enpresetan jarraipena egitea, horietan dauden desbideratzeak zuzendu ahal izateko eta betetze-maila handitu ahal izateko.
- c) **Igorpenak Etengabeen Neurtzeko Sistemak (IENS)** 2018an hasitako proiektuarekin jarraituko da, egiaztatzeko xede hau duena: zenbateraino betetzen dituzten operadoreek dagozkien baimenetan jasotako baldintzak eta Ingurumeneko Sailburuordetzak IENSEi buruz argitaratutako jarraibide teknikoak.
- d) **Administrazioaren Erakunde Kolaboratzaileak (AEK)**. Atmosferara egindako isurtzeen kontrol-kalitatea bermatzeko xedez, atmosferara egindako isurtzeak kontrolatzeko ikuskapenak mantenduko zaizkie, 2019an, kontrol ofizial gehien egiten dituzten administrazioaren erakunde kolaboratzaileei.
- e) **Ingurumen Erantzukizunari buruzko Legea**. Bi helburu dituen proiektua da: alde batetik, operadoreek betebeharrak betetzen dituzten egiaztatzeko behar den kontrol-araubidea ezartzea eta garatzea, finantza-bermea eratzeari dagokionez, Ingurumen

<sup>1</sup>Abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren esparruko jarduerak. Dekretu horren bidez, Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko Legearen testu bategina onartu zen.

Administrazioaren Zuzendaritzak gaitu den plataforma telematikoaren bidez, indarrean dagoen araudiaren arabera. Bestalde, operadoreei laguntzen jarraituko zaie Ingurumen Erantzukizunaren Legearen aplikaziotik eratorritako obligazioak bete ditzaten, aintzat hartuta urriaren 23an argitaratu zen APM/1040/2017 Agindua, Ingurumen Erantzukizunaren urriaren 23ko 26/2007 Legearen III. eranskinean jasotako jardueretan — ekainaren 22ko ARM/1783/2011 Aginduaren bidez 1. eta 2. lehentasun-mailakotzat sailkatuta— nahitaezko finantza-bermea eratzea noiztik eska daitekeen ezartzen duena eta aipatutako agindu horren eranskina aldatzen duena.

- f) **Hondakinak kudeatzeko eta ekoizteko jarduerak kontrolatzea.** Hondakinen mugaz gaindiko lekualdatzeak kontrolatzeko proiektu espezifikoak gauzatzen jarraituko da, eta lehentasunezko eremutzat hartuko dira EBko hondakinak Estatura sartzeko puntuak, lekualdatzeak eta beste administrazio batzuetako komunikazioak.
- g) **Ingurumen-arazoak konpontzen edo minimizatzen laguntzea.** 2019an, hiru proiektu gauzatuko dira ingurumeneko arazoak konpontzeko edo arintzeko xedez:
- Hondakinak eta materialak kudeatzea, jarduerak eten ostean. Esan behar da nabarmen jaitsi dela eteten ari diren jardueren kopurua, ingurumen-organoak gauzatutako jarduerak bertan behera uzteari buruzko azken urteetako kontrolaren ondorioz; izan ere, desbideratzeak antzeman dira haietan, dagozkien gaikuntza-tituluak edo indarreko araudia betetzeari dagokionez. Kontuan hartuta haiekin lotutako ingurumen-arriskua, jarraitutasuna eman zaio proiektuari.
  - Abisuen eta programatu gabeko ikuskapenen kudeaketa, kexa, salaketa, gertaera edo istripuekin lotuta. Horretarako, 24 orduko laguntza-zerbitzua egongo da abian, urtearen 365 egunetan, informazioa jaso eta egoera noiznahi ebaluatu ahal izateko, bai eta ingurumen-arriskuak edo kalteak gutxitzeko komeni diren jarduerak hasteko ere.
  - Zaintza-ikuskapenak hiru lurralde historikoetako industrialdeetan. Instalazioetara egindako ikuskapenekin lortutako esperientziak agerian uzten du badirela zenbait jarduera zeinak nekez sar daitezkeen ekitaldi bakoitzean egin beharreko ikuskapenen zerrendetan, datu-baseetan ez agertzeagatik. Horregatik, ikuskatu behar diren operadoreen informazioa biltzen jarraituko da.

## 2.1.- 2019ko helburu estrategikoak eta proiektuak.

Taula honek 2019rako programatutako proiektuak jasotzen ditu, Ikuskapenerako eta Kontrolerako Planaren helburu estrategikoak garatzeko.

Planaren jarduketa-lerro estrategikoak (4.3 atala)	ERREFERENTZIA	PROIEKTUA	PROIEKTUAREN LABURRA	DESKRIBAPEN
Bermatzea 1/2016 LEDaren mendeko enpresek ingurumen-araudia betetzen dutela.	01/2019	IPPC jardueren segimendua ikuskatzea	Programatutako ikuskapenak arriskuen ebaluazioaren emaitzen arabera.  Betetze-maila baxuena duten, ingurumenari gehien eragiten dioten edo arrisku handiena duten enpresen jarraipen espezifikoak.  IPPC jarduera berrien ikuskapena, abian jartzen direnetik urtebetera	
	06/2019	Igorpenak Etengabeen Neurtzeko Sistemak (IENS)	Zehaztea operadoreen betetze-maila Isurtzeak Etengabeen Neurtzeko Sistemekin (IENS).	
	04/2019	Ingurumen-erantzukizuna	Operadoreen betebeharren betetze-maila egiaztatzeko behar diren kontrolak ezartzea eta gauzatzea, finantza-bermea eratzeari dagokionez, eta operadoreei beharrezko informazioa ematea legea aplikatuz eratorritako betebeharrei buruz.	
Ingurumen-araudia betetzen dutela bermatzea Arrisku handieneko kutsadurari buruzko 1/2016 LEDaren mendean ez dauden enpresak.	02/2019	IPPC ez diren jarduerak ikuskatzea	Aurreko urtean ikuskatutako enpresen betetze-maila areagotzea betetze-maila handira edo ertain-handira.  IPPC ez diren jarduera-multzo berrien ikuskapena.	
	03/2019	AEKak ikuskatzea	Atmosferara egindako emisioen kontrol ofizialak egiten dituzten AEKak ikuskatzea.	
Hondakinen mugaz gaindiko lekualdatzeari buruzko araudia betetzen dela bermatzea.	05/2019	Hondakinen lekualdaketa	Erkidegoko hondakinen sarrera-puntuak, lekualdaketa eta operadoreak ikuskatzea.	

Planaren jarduketa-lerro estrategikoak (4.3 atala)	ERREFERENTZIA	PROIEKTUA	PROIEKTUAREN LABURRA	DESKRIBAPEN
EAEko industria-jardueren lotutako ingurumen-arazoak konpontzen edo kontrolatzen laguntzea.	08/2019	Hondakinak eta materialak kudeatzea, jarduerak itxi ostean	Jarduera bertan behera uztean, bertako hondakinak eta materialak egoki kudeatzen direla ziurtatzea.	
	07/2019	Industria-guneen segimendua	Lurralde bakoitzeko industrialde garrantzitsuak gainbegiratzea aurretiaz ohartarazi gabe, legez kontrako ingurumen-jarduerak identifikatzeko eta IPPC ez diren jardueren ikuskapeneko proiektuan sar daitezkeen jardueren buruzko informazioa biltzeko.	
Ingurumenean eragina duten gertaerei eta istripuei buruzko abisuak, kexak eta salaketak kudeatzea	09/2019	Abisuen eta programatu gabeko bisiten kudeaketa	Urteko 365 egunetan, 24 orduko erantzun-zerbitzua, gorabeheretan eta istripuetan sor daitezkeen abisuak eta hondakinak kudeatzeko.  Ikuskapen Zerbitzuaren erantzuna antolatzea Larrialdi Planen eta taktika operatiboaren aurrean	

Proiektu guztiak dokumentu batean garatzen dira, egitura honekin:

1. Aurrekariak
2. Proiektu mota
3. Helmugak eta xedeak
4. Jarduteko plana
5. Adierazleak
6. Jarraipena
7. Errekurtsoak
8. Kronograma
9. Txostenen zerrenda

2.2.- 2019ko ikuskapen-proiektuak: helburu espezifikoak eta xedeak.

Jarraian, proiektuen helburu espezifikoak eta xedeak zehazten dira, 2019-2026 aldirako Ingurumen arloko Ikuskaritza eta Kontrolerako Planaren lerro estrategiko bakoitzaren barruan.

*Xedea: Bermatzea ingurumen-araudia betetzen dutela 1/2016  
LEDaren mendeko enpresek.*





### 2.2.1.- 01/2019 Proiektua: IPPC jardueren segimendua ikuskatzea

Ikuskapen-plan bat eduki behar dute IPPC araudiaren aplikazio-eremuan dauden instalazioek Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2010eko azaroaren 24an isurpen industrialei buruz onartutako 2010/75/EB Zuzentarauaren 23. artikuluekin bat —16/2002 Legea aldatzen duen 5/2013 legeak gure ordenamendura ekarria (orain abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretua, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuaren Legearen testu bategina onartzen duena)—, eta 815/2013 Errege Dekretuekin bat etorriz.

Oinarriztat hartuz orain gutxi onartu den 2019-2026 aldirako Ingurumen arloko Ikuskaritza eta Kontrolerako Plana, ikuskapen-programak egiten dira, zeinek instalazioetara egingo diren bisiten maiztasuna barne hartzen duten. Arriskuak ebaluatzeko prozeduraren arabera antolatzen da bisita-maiztasun hori eta Ingurumen Sailburuordetzaren webgunean dago argitaratuta, programatutako eta programatu gabeko ikuskapen-prozedurekin batera.

2019an, enpresa hauek ikuskatuko dira: urtebeteko maiztasuna ezarrita daukaten 50 enpresa, bi urteko maiztasuna ezarrita daukaten 38 enpresa, hiru urteko maiztasuna ezarrita daukaten 41 enpresa eta aurrez aldizkakotasunik zehaztuta ez duten 13 enpresa. Orotara, 142 IPPC jarduerari egingo zaie ikuskapen programatua.

#### Helburu espezifikoak eta xedeak:

-  IPPC enpresek ingurumen-araudiaren betetze-maila hobetzea.
-  Sailkatutako desbideratze larriak eta esanguratsuak zuzentzea sei hilabeteko epean gehienez, eta ez dadila egon betetze-maila txikia edo txiki-ertaina duen jarduerarik.
-  Herritarrengan edo ingurumenean eragozpenak edo arriskuak sor ditzaketen IPPC jarduerak kontrolatzea.
-  IPPC berriei ikuskapena egitea, abian jartzen direnetik edo Ingurumen Baimen Bateratua (IBB) lortzen dutenetik urtebete igaro baino lehen.

### 2.2.2.- 06/2019 Proiektua: Igorpenak Etengabeen Neurtzeko Sistemak (IENS) kontrolatzea IPPC instalazioetan

Egiaztatzen jarraitzea operadoreen betetze-maila, dagozkien baimenetan jasotako baldintzei eta Ingurumeneko Sailburuordetzak IENSei buruz argitaratutako Jarraibide Teknikoei dagokienez. IPPCko eta aireko administrazio-unitateetako teknikariek batera lan eginez gauzatzen da proiektua.



Helburu espezifikoak eta xedeak:

- ✿ Aztertzen jarraitzea enpresek zenbateraino betetzen dituzten IBBk ezartzen dituen eskakizunak IENSein neurtutako parametroetarako.
- ✿ Zuzentzea antzemandako desbideratzeen % 60.
- ✿ Sailburuordetzaren administrazio-unitate guztien artean, barne prozedura arautzea, zeinak proiektu horren esparruan egindako lanen etengabeko eguneratzea ziurtatzen duen, betetze-maila optimoa bermatuz denboran zehar.

### 2.2.3.- 04/2019 Proiektua Ingurumen-erantzukizuna

Ingurumen Erantzukizunaren urriaren 23ko 26/2007 Legearen 24. artikulua ezartzen du lege horren III. eranskinean sartuta dauden jardueren operadoreek nahitaezko berme finantzarioa eratu beharko dutela. Era berean, ekainaren 22ko ARM/1783/2011 Aginduak lehentasun-hurrenkera eta egutegia ezartzen du Ministerioaren aginduak onartzeko; ordutik, nahitaezko berme finantzarioa eratzea eskatuko da.

2017ko urriaren 30ean, urriaren 23ko APM/1040/2017 Agindua argitaratu zen, Ingurumen Erantzukizunaren urriaren 23ko 26/2007 Legearen III. eranskinean jasotako jardueretan nahitaezko finantza-bermea eratzea noiztik eska daitekeen ezartzen duena eta aipatutako agindu horren eranskina aldatzen duena -ekainaren 22ko ARM/1783/2011 Aginduaren bidez 1. eta 2. lehentasun-mailakotzat sailkatuta-.

1. lehentasun-mailarekin sailkatutako jarduerak aurrera eraman nahi dituzten jardueri datzekien ingurumen-erantzukizunari aurre egiteko finantza-bermea eduki behar dute, urtebeteko epean APM/1040/2017 Agindua indarrean sartzetik, hots, 2018ko urriaren 31tik. Bestalde, 2. lehentasun-mailarekin sailkatutako jarduerak finantza-berme hori eduki beharko dute bi urteko epean, hau da, 2019ko urriaren 31rako.

Helburu espezifikoak eta xedeak:

- ❁ Operadoreen betebeharren betetze-maila egiaztatzeko behar den kontrol-araubidea ezartzea eta garatzea, finantza-bermea eratzeari dagokionez.
- ❁ Finantza-bermea jarri behar duten operadoreei beharrezko informazioa eta tresnak ematea, 26/2007 Legetik eta 2017ko urriaren 23ko APM/1040/2017 Agindutik eratorritako betebeharra bete dezaten.

*Xedea: Bermatzea Ingurumen-araudia betetzen dutela Arrisku handieneko kutsadurari buruzko 1/2016 LEDaren mendean ez dauden enpresak.*

#### **2.2.4.- 02/2019 Proiektua: IPPC ez diren jardueren ikuskapen programatua**

Aurreko urtean ezarritako sistemarekin jarraitzeko, IPPC ez diren eta, hasiera batean, kutsatzeko ahalmen handia izan dezaketen jarduerak ikuskatzen jarraitzen dute. Hala, aurreikusi da 254 enpresa ikuskatzea. Aldi berean, aurreko ekitaldiko ikuskatzeetatik ateratako datuak ustiatuko dira, eta jarraipena egingo da errekerimendu egin zaien jarduerari desbideratzeak zuzenduta daudela bermatzeko.

Proiektu hau urte askotakoa da, eta 2014an hasi ziren haren jarduerak. Unitatean eskuragarri dauden baliabideen arabera, Ikuskapen Zerbitzuko langileek ikuskatuko dituzte proiektu honekin lotutako zenbait jarduera eta, gainerakoetan, Laguntza Teknikoaren babesa izango dute.

Helburu espezifikoak eta xedeak:

- ❁ 2019an ikuskatutako IPPC ez diren enpresetatik, % 95ek araudiarekiko betetze-maila ertaina, ertain-handia eta handia dute.
- ❁ 2018an ikuskatu diren IPPC ez diren enpresen kopurua % 10era mugatzea, ikuskatutako enpresetan eginiko jarraipenaren ostean betetze-maila moderatuak izan badituzte.

#### **2.2.5.- 03/2019 Proiektua: Ikuskatzea Ingurumen Lankidetzako Erakundeak (ILE)**

Atmosfera Kutsa Dezaketen Jardueren (AKDJ) kontrol-eremuan, Ingurumen Lankidetzako Erakundeen (ILE) jarduera ikuskatzen da 2014az geroztik, ILEek kontrolen adierazgarritasuna eta aplikaziozko arautegia betetzen dituztela egiaztatzeko xedez.

Epe horretan, ikuskapenerako lagungarria den dokumentazio hau garatu da:

- Isurpenen kontroleko baldintza orokorren ikuskaritza-gida.
- Kutsatzaileen fitxak, kutsatzaile gehienei aplikatu beharreko neurketa-arauei dagokienez (partikulak, errekuntza-gasak, SO<sub>2</sub>, metalak, merkurioa, NO<sub>x</sub>, KOG eta HF).
- ILEen ikuskaritza-prozedura. Ikuskaritza-fase guztiak hartzen ditu kontuan aipatu prozedurak. Halaber, desbideratzeak eta haiek ebaluatzeko sistematika definitzen ditu, baita antzemandako desbideratzeak ebaluatzean gauza daitezkeen administrazio-jarduketak ere.

Beharrezkotzat jotzen da ILEak ikuskatzen jarraitzea 2019an, Atmosfera Kutsa Dezaketen Jardueren (AKDJ) kontrol-eremuan, eta kontrola zabaltzea ordura arte ikuskatu ez diren jarduera-sektoreetan edo kutsatzaileetan.

Helburu espezifikoak eta xedeak:

- ILEek fokuarik neurtzeko ezarritako araudia betetzen dutela ziurtatzea, eta, horretarako, lau ikuskapen egitea.
- ILEen kontrolen adierazgarritasuna egiaztatzea, bereziki, airearen ingurumen-bektorean ingurumen-arazoak dituzten jardueretan.
- ILEei egindako ikuskapenak eta haien irismena sistematizatzea.

*Xedea: Mugaz gaindiko hondakinen lekualdatzeari buruzko araudia betetzen dela bermatzea.*

### 2.2.6.- 05/2019 Proiektua: Hondakinen lekualdaketa






Hauxe ezartzen du Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko maiatzaren 15eko 660/2014 Erregelamenduak, 1013/2006 Erregelamendua (EB) aldatzen duenak: estatu kideek ikuskapen-plan bat edo gehiago eduki behar dituzte mugaz gaindiko hondakinen tokialdaketei lotuta, 2017ko urtarrilaren 1erako gehienez ere. Plan horietan jaso behar dira ikuskapenetan parte hartuko duen agintaritza bakoitzari esleitutako zereginak, besteak beste.

Helburu estrategikoen artean, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2006ko ekainaren 14an hondakinak lekualdatzeari buruz onartutako 1013/2006 Erregelamenduaren 50. artikulua betetzea jasotzen du 2019-2026 aldirako Ingurumen-ikuskaritzako eta -kontroleko Planak. Erregelamendu hori 660/2014 Erregelamenduak (EB) sartu zuen eta azken Erregelamendu horrek ezartzen du, gehienez ere 2017ko urtarrilaren 1ean, estatu kideek ezarri izana bermatuko dutela, beren lurralde

geografiko osorako, plan bat edo gehiago, hala bereizita nola beste plan batzuen zati jakin gisa, hondakinen lekualdatzeak eta dagokien baliaraztea edo ezabaketa ikuskatzeko.

Aurreko urteetan ezarritako sistematikari jarraikiz, hondakinen mugaz gaindiko lekualdaketa ikuskapen programatuarekin jarraituko da.

Helburu espezifikoak eta xedeak:

-  Ikuskapen programatuak EBko estatu kideetatik edo estatu kideetara hondakinak inportatzen/esportatzen dituzten operadoreetan. 15 ikuskapen egingo zaizkie 2016, 2017 eta 2018 urteetan bildutako informazioan identifikatu diren operadoreei.
-  Ikuskapen programatua portuetan. Portuen ikuskapenak egingo dira, Aduanak gure laguntza eskatzen badu eta/edo Nekazaritza, Arrantza, Elikadura eta Ingurumeneko Ministerioak (MAPAMA) proposatutako Kudeaketa Aginduak, behin sinatuta, horrela jasotzen badu.
-  Ikuskapen programatua errepideetan. Hondakinak tokiz aldatzeari dagokionez, ikuskapenak antolatuko dira errepideetan, administrazio-unitatean eskuragarri dauden baliabideen arabera.
-  Agerian uztea bidegabeko lekualdaketak. Mugaz gaindiko hondakin-tokialdaketen ikuskapen-planen barruan programatu diren ikuskapenetarako prozedura orokorra aplikatzen jarraituko da beste proiektu batzuen ikuskapenetan, hondakinak tokialdatzen dituzten operadoreak identifikatze aldera.
-  Hondakinak tokialdatzen dituzten operadoreei buruzko informazioa biltzeko prozedurarekin jarraituko da.

*Xedea: EAEko industria-jarduerei lotutako ingurumen-arazoak konpontzen edo kontrolatzen laguntzea.*




Ingurumen arloko Ikuskaritza eta Kontrolerako Planaren lerro estrategiko hau Ikuskapen Zerbitzuaren emaitzak lortzera zuzendutako kudeaketara ondoen egokitzen diren helburuetako bat da, batez ere industria-jardueren ingurumen-arloko arazoak konpontzen laguntzen duten kasuetan, kontuan hartuta gizarte- eta ingurumen-arloko gatazkak. Orain dela zenbait urtetik gauzatzen ari den proiektu honek emaitza ona izan du eta aurreko urteetan hasitako edo planteatutako zenbait proiektuekin jarraituko da 2019an.

Jarraian, helburu estrategiko honekin loturiko proiektuetarako helburu espezifikoak eta xedeak zehazten dira.

### **2.2.7.- 08/2019 Proiektua: Hondakinak eta lehengaiak kudeatzea, jarduerak eten ostean**

2017tik antzeman da murriztu egin dela proiektu honetan sartzen ziren etete-espeditente berrien kopurua, industria-jardueren egoera sozioekonomikoaren aldaketaren ondorioz. Aurreko ekitaldietan bezala, konkurtso-prozedurak eragiten dituzten etete-kasu gehienek egoera juridiko berezia dute, eta, ondorioz, Sailburuordetzak arriskuaren kudeaketa sustatzeko asmoz burutzen dituen jarduerak arrakasta-maila desberdina izaten dute.

#### Helburu espezifikoak eta xedeak:



-  Lurra, ura edo airea kutsatzeko ingurumen-arriskua murriztea, arrazoi ekonomikoen ondorioz jarduera eten duten edo konkurtso-prozesu batean dauden edo egon daitezkeen instalazioetan eta arrazoi ekonomikoak ez diren beste arrazoi batzuegatik haien jarduera behin-behinean edo behin betiko eten duten instalazioetan.
-  Industria-jarduerak eten ondoren instalazioetan geratzen diren hondakinak eta lehengaiak behar bezala kudeatzen direla ziurtatzea.
-  Behin-behinean edo behin betiko eten diren jardueren ingurumen-arriskua identifikatzeko eta kontrolatzeko sistematika mantentzea eta optimizatzea.

### **2.2.8.- 07/2019 Proiektua: Industria guneen jarraipena**

Azken urteotan, IPPC diren eta IPPC ez diren Instalazioetan egindako ikuskapenekin lortutako esperientziak agerian uzten du badirela zenbait jarduera datu-baseetan ez azaltzeagatik nekez sartu daitezkeenak ekitaldi bakoitzeko ikuskapen-zerrendetan.

Bestalde, EAEn industrialde ugari daude, eta, ondorioz, kasu askotan, ez dakigu industrialde horietan kokatutako enpresek indarreko ingurumen-legedia betetzen duten eta ingurumenean zenbaterainoko eragina duten. Enpresa haien ingurumen-eragina gutxitzen laguntzeko xedez, aurreikusi da zaintza-ikuskapenak egitea hiru lurralde historikoetako industrialdeetan.

#### Helburu espezifikoak eta xedeak:

-  Ikuskatutako industrialdeetan dauden instalazioak detektatzea, zeinak IPPC ez diren instalazioen ikuskapen-zerrendetan sar daitezkeen. 30 enpresa lortzea ikuskapeneko zerrendetan sartzeko.
-  Ingurumenari kalte egiten dioten enpresen ohiko jarduerak ekiditea, hala nola igorpen lausoak, kontrolik gabeko isurketak egiteko arriskua, hondakin (arriskutsuen eta ez-arriskutsuen) kudeaketa eta/edo biltegiatzea, inbentarioan sartutako lurzoruetan jarduera esanguratsuak burutzea eta ingurumenerako arriskutsuak izan daitezkeen beste jarduera batzuk.

*Xedea: Ingurumenean eragina duten gertaerei eta istripuei buruzko abisuak, kexak eta salaketak kudeatzea*

Hainbat urtetako proiektua da helburu estrategiko hori. Proiektuaren garapena arreta edo erantzuna ziurtatzera dago bideratuta, ingurumenari buruzko abisu edo larrialdien kasuan eta 24 orduz. Horretarako, bi laguntza teknikoren sostengua mantenduko da aurrerantzean: biek txandaka egingo dute lan, bitarteko eta baliabide egokiak izan ditzaten abisuei erantzuteko eta, behar izanez gero, haietan sortutako hondakinak kudeatzeko. Jardungo duten laguntza zerbitzuak lehen mailako ILETzat joko dira, Ingurumen-lankidetzako erakundeak arautzen dituen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Lankidetzako Erakundearen Erregistroa sortzen duen urriaren 16ko 212/2012 Dekretuaren arabera, Administrazioak kontratatutako jardueretarako.

#### **2.2.9.- 09/2019 Proiektua: Abisuen eta programatu gabeko bisiten kudeaketa**

Salaketetatik eratorritako abisuen, SOS-DEIAK abisuen, gertakarien, istripuen eta abarren erantzuna gero eta garrantzitsuagoa da araudiaren betetze-maila areagotzen doan heinean; izan ere, gero eta garrantzi handiagoa hartzen hasi dira normala ez den funtzionamendu-egoeretatik eratorritako ingurumen-atxikipenak.

Helburu espezifikoak eta xedeak:

- Erantzuna antolatzea, eguneko 24 orduetan, urteko egun guztietan, gertaera eta istripuetan sor daitezkeen abisuak eta hondakinak kudeatzeko.
- Ikuskapen-zerbitzuak larrialdien eta taktika operatiboen planetarako erantzuna antolatzea.
- Tartean dauden sailekin koordinazioa hobetzea.

*Xedea: Zerbitzua ikuskatzeko gaitasuna handitzea.*

Ingurumen Ikuskapen Zerbitzuaren galga nagusia proiektuak egikaritzeko eskura dituen giza baliabide mugatuak dira. Hala ere, garrantzitsuena da eragin biderkatzailea sortzea, ikuskapen-ahalmena optimizatzeko. Horretarako, eskura dauden giza baliabideak eta baliabide materialak behar bezala kudeatuko dira, eta Ingurumen Lankidetzarako Erakundeak ikuskapenaren osagarri eta laguntza gisa erabiliko dira.

Jarraian, eremu honetako zenbait jarduera-ildo azaltzen dira:

- Airearen Kalitatea Zaintzeko eta Kontrolatzeko Sarearen baliabideetan oinarritzea, airearen kalitatearekin eta emisioekin lotutako egoera analitikoki ezaugarritzeko. GC/MSek detektatutako osagai organikoak interpretatzeko irizpideak ezartzea.
- Ikuskapen Zerbitzuko teknikariaren lana sistematizatzea eta harmonizatzea, prozesuaren kudeaketan kalitate-irizpideak mantentzearen bidez.

*Xedea: Ikuskapenak Europako testuinguruaren arabera egitea, helburuei, estrategiari zein irizpideei dagokienez.*

Helburu honen xedea da Ikuskapen Zerbitzuko jarduerak egokitzea estatuko nahiz Europako testuinguruari, ikuskapenarekin lotutako fase guztietan parte hartzeko; besteak beste, araudia egiteko irizpideetan eta ikuskapenak egiteari dagozkionetan. Horretarako, elkarrekin lan egiteko eta informazioa trukatzeko foroak daude, non Ikuskapen Zerbitzua partaide den eta parte-hartze aktiboa duen, hala nola REDIA, ingurumen-ikuskapen agintaritzen sarea (autonomia-erkidegoak eta Ministerioa) eta IMPEL (Europako Esparru Ekonomikoko estatuak; Europar Batasuna, batik bat).

### 3.- GIZA BALIABIDEEN ANTOLAKUNTZA

Hau da Ikuskapen Zerbitzuan dagoen egitura 2019. urtean: zerbitzuburu bat, ikuskapeneko 8 teknikari, aholkularitza juridikoa eta laguntza administratiboa. Bi ikuskapen-teknikari Bizkaiko Lurralde Historikoan daude (Bilbon dute bulegoa), beste bi Gipuzkoako Lurralde Historikoan (Donostian dute bulegoa) eta beste lau Arabako Lurralde Historikoan (Gasteizen dute bulegoan, Lakuan).

Dauden baliabideetara egokituta daude programatutako jarduerak, eta aurreikusita dago ingurumen-ikuskatzaileen prestakuntzan eta profesionalizazioan aurrera egitea, zehazten diren planen arabera, betiere egiten diren lanetarako gaitasun teknikoa ziurtatzeko xedez.

Ikuskapen-programaren helburuak betetzeko estrategia gisa, eta 2019-2026ko Ingurumen arloko Ikuskaritza eta Kontrolerako Planetik ateratako zuzentarauekin bat etorriz, aurreikusi da kanpoko laguntza teknikoa kontratatzea 2019. urteko ikuskapen-programan sartutako jarduera batzuk egiteko laguntza gisa.

### 4.- INFORMAZIOA KUDEATZEKO SISTEMA

2018an zehar, elektronikoki kudeatu eta izapidetu dira Ikuskapen Zerbitzuari lotutako ia administrazio-prozedura guztiak. Ikuskapen-txostenak elektronikoki artxibatuta daude Eusko Jaurlaritzaren Artxibo Sistema Orokorrean, ezarritako irizpideak betez.

Arlo horretako 2019rako jarduerak oinarri hau izango dute:

- Ikuskapen-prozedura administratiboak sartzen hastea INGURUNET Ingurumen Kudeaketaren Informazio Sistema berrian, zeinak xede nagusizat duen zerbitzu publikoen kalitatea hobetzea, legezketasunaren jarraipena eta kontrola erraztuz.
- Ikuskapenari lotutako datuen kontsulta eta ustiapena hobetzen jarraitzea, baita Sailburuordetzako beste administrazio-unitate batzuen erabiltzaileen irisgarritasuna ere.
- Jendaurrean jartzea ikuskapenen arloko programak, memoriak eta txostenak Eusko Jaurlaritzaren webgune ofizialaren bidez.

### 5.- KONTROL-PLANA

Kontrolari dagokionez, beste urteetako esperientzian oinarrituta, ILEen laguntza teknikoa mantenduko da IPPC ez diren jardueren araudia eta baimenak betetzen direla egiaztatzeko. Isurtzeak kontrolatzeari dagokionez, ILEen arauzko kontrolei jarraipena egitea planteatu da, IPPC diren edo ez diren jardueren ikuskapen-proiektuen lehentasunak oinarri hartuta.



## 6.- INGURUMEN-ARAUDIA ETA -DIZIPLINA

2019-2026 aldirako Ingurumen arloko Ikuskaritza eta Kontrolerako Planean adierazten den bezala, beharrezkoa da ikuskapenaren lege-esparru eguneratua edukitzea, ikuskapen- eta kontrol-antolakuntzaren araudia garatzea, eta ingurumen-diziplina aplikatzea, ikuskapenetatik eratorritako espedientei dagokienez.

## 7.- INGURUMEN IKUSKAPENERAKO ETA KONTROLERAKO PROGRAMA BERRIKUSTEA

Proiektuetako bakoitzean egikaritze-kontrolerako adierazle batzuk ezarriko dira, eta proiektuen jarraipena egitea ahalbidetuko dute. Oinarrizko irizpide gisa, proiektuen segimendua, gutxienez, sei hilean behin egitea planteatu da aurten.

Ikuskapen Zerbitzuko giza baliabideak faktore mugatzailea dira guztiz garatzeko aipatutako Ingurumenaren Ikuskapen eta Kontrolerako Programa. Horregatik, lehentasun handieneko proiektuekin hastea proposatu da, gainerakoak aurrera eramateko baliabideen arabera.

Barneko segimenduak programaren egikaritzea doituz joatea ahalbidetuko du, lehentasuna emanaz ingurumenaren aldetik garrantzi edo arrisku handiena dutenei. Jarraipen hori Ingurumen Sailburuordetzaren bileren bitartez egingo da; bilera horietan, zuzendaritza-taldeak eta Sailburuordetzako zerbitzu teknikoetako langileek hartuko dute parte.